



2017ko abendua

AURKEZPENA

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunean espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. Ziklotekak 2016. urte hasieran ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Ziklotekaren dokumentu-funtsa Diputazioaren, udaletxeen, unibertsitateen, kolektiboen eta norbanakoen lankidetzeta eta ekarpenen emaitza da. Bertan eskaintzen den dokumentazioa kontsultatzeko espazio fisikoa izateaz gain, dokumentazio guzti hori bildu eta kudeatzeko tresna informatiko bat ere sortu da; dokumentu guztiak Internet bidez kontsulta daitezke horretarako propio sortutako webgune batean eta **bilatzaileak** digitalizatutako dokumentazioa

online deskargatzeko aukera ematen du.

Lehenengo buletinean esaten genuen bezala, zure laguntasuna jasotzea nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzu edo haien berri baldin baduzu, guri helarazi edo jakinaraztea eskertuko genizuke.

Telefonoz deitzen baduzu (943 453 526) edo mezu elektronikoa bidaltzen baduzu (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzun dizugu; esku artean duzun informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta hori guztia Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko genuke.

CONBICI-REN AGURRA



C o n B i c i Koordinatzailearen Idazkaritzak Zikloteka buletin digitaleko jarraitzaile guztiak agurtu nahi ditu. Aurrerantzean Zikloteka entitatearekin elkarlanean arituko gara bizikletarekin eta mugikortasun jasangarriarekin

harremana duten mota guztietako argitalpenak eta ikerketak gomendatzeko. Halaber, buletin honen erabilzaile zaretenoi, hondo dokumental izugarri honetan parte-hartzera animatu nahi zaituztegu, Ziklotekari izenburu edo ikerketa berriak jakin eraziz, dudarik gabe, hauek probetxugarriak izango baitira mundu hobeago batengatik eta mugikortasun ez-kutsatzaileari esker bizitza kalitate hobeago batengatik lan egiten dutenentzat.

ConBici-ko Idazkaritza

CICLOSFERA-REN AGURRA



C i c l o s f e r a - t i k agurtu, ospatu eta ezinegonarekin itxaroten dugu Ziklotekaren buletin digitala. Ongietorria da bizikletaren kulturaren fenomenoaren ezagutzera laguntzen duen ekimen oro, are gehiago horrelako hiri zoragarri batetik baldin badator, eta egundoko gizataldearekin, Zikloteka hau

den bezala. Aurrerantzean elkarlanean arituko gara, gure baliabideak erabiliz aktibitateak zabaltzeko eta, era berean, gure lan guztien aleak eta artxibategiko materiala eskuragarri utziko dizkiegu. Ea elkarlan honek, kultura eta informazioaren bitartez, bizikletaren eguneroko erabilera sustatzen duen, jendeari, askorentzat bizimodu bat den makinaren atzean, dauden istorio eta adibide zoragarriak erakutsiz.

Rafa Vidiella, Ciclosferako zuzendaria

DOKUMENTU HAUTAKETA

Gaur egun 3.000 dokumentutik gora ditugu gure datu-basean. Adibide gisa, aurkitu eta deskargatu ditzakezun dokumentu batzuen erreferentzia laburra aurkezten dizugu:



Bizikletaren aldeko udal- esperientzien inguruko ohar- koadernoia ↓

Edorta Bergua eta Manu González
(koord). Cristina Enea Fundazioa. 2017.

Bizikletaren sustapen-arloan hainbat udalerritan egindako esperientzien eta hiri-ziklismoa errazten duten bide-ekintzen aukeraketa.



Bizikleta mugikortasuna Donostian ↓

Alaitz Arrieta Iturzaeta. Cristina Enea Fundazioa. 2017.

Donostiako hiriko bizikletaren erabileraren inguruan egin den ikerketa da, non bizikletan ibiltzen den jendearen ohiturak eta kultura aztertzen diren, eta hiriak horretarako dituen azpiegiturak behatzen diren.



Hiriak eta Bizikleta ↓

ConBici. Pons Argitaletxea. 2017.

ConBici-ren gomendioa

Liburu honetan, ConBicik, gaur egungo hirigintza- eta lege-egoerarentzat behin behineko erantzun eta konponbideak erakusten ditu, helburu gisa ezagutzen dugunetik oso desberdina den hiri-eredua izanik. Bizikleta-erabiltzaileak kontuan hartzetik harago, pertsona orearen bizi-kalitatea hobetzeko xedea duen eredua.



Ciclosfera: 22. zenbakia ↓

Bizikleta zaletasunaren inguruko 84 orrialde berria hauekin gozatu.

Zein soinu egiten du bizikleta batek? Aldizkariak erreportaje luze bat eskaintzen die, sumagaitzak diren soinuak lortuz, beraien bizikletak musika instrumentu bihurtu dituzten musikariei. Bizikleta txuriaren istorioa kontatzen du, zeinek bizikletazale hil bakar bat gehiegi dela gogorarazten du. Bizikletak dituen onurak ere aztertzen ditu, lanera bizikletaz joateak eta abar, bai enpresa eta baita langilearentzat ere.



Europa Biziz! Aniztasunaren bitakora ↓

Argitalpena eta Erredakzioa: Daniel Burgui eta E.E. 2017.

Liburuak, enbaxada ibiltari moduan eta Kultur Hiriburutzaren barruan, 2016an, Europako hainbat leku bizikletaz bisitatu zituzten bost espedizioen esperientzia eta bizipenak biltzen ditu. European zehar bizikletaz ibiltzeko begirada-multzoa.

BIDEOAK

Ziklotekak bizikleta-mugikortasunarekin lotutako bideoak ere baditu bere artxiboetan. Bigarren buletin honetan jasotzen dugu



Lanera bizikletaz Debagoienan



ALBISTEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia Bizikletaren aldeko Hirien Sareko kidea da.



Gaur egun estatuko 550 udalerrri ordezkatzan dituzten 100 elkartekidek osatzen dute sarea. Bizikletaren erabilera sustatzea dute xede, desplazamendurako garraio jasangarri eta osasungarri gisa.

G i p u z k o a “Bizikletazaleentzako hiri eta eskualdeak” Europako sarean sartzen da. Sare honetan kide dira mugikortasun ziklista gaian aitzindari diren hiri eta eskualdeak, Kopenhage, Viena, Munich, Stockholmo edo Helsinki esaterako.

AGENDA

Donostiako Bizikleta Azoka (maiatzak 26 eta 27)

Bostgarren aldiz ospatuko da Donostian Bizikletaren Azoka. Bertan bizikleta eta osagarrien alokairu, konponketa eta salmentarako saltoki espezializatuen stand-ak egongo dira, bi gurpilekin harremanduta dagoen guztiaren nobedadeak aurkeztuz.

Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa
Mandasko dukearen pasealekua 66. 20012 Donostia
943 45 35 26 | zikloteka@donostia.eus | cristinaenea.eus/zikloteka

Ordutegia:

Astelehenetik larunbatera: 09:30etik 13:30era / 15:00etatik 20:00etara (neguan, 19:00ak arte).
Ilgande eta jaiegunetan: 10:00etatik 13:30era



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Movilidad
y Ordenación del Territorio

